

Noaia!!!

www.noaia.com



Felix Aizpurua literatura
lehiaketako sari banaketa



20 urte beteko ditu

Ikastolaren Eguneko jaialdia

Patxi Zubizarreta

-HAMAR MEZU ETA DEI BAT-

Ekainak 19, ostirala
19:00etan, udaltxeko
teilatupeko aretoan

Orion



Erraustegian sortuko diren
sustantziek ze ondorio
dakartzate?

"... %28-ko igoera jasaten
da asma arazoetan
errausteko instalazioak
daudeneko 10 Km barne
dagoen populazioarengan."

Iturria: Biriken Elkartea Amerikarra,
Texas, EEBB. 2002ko Martxoan

Osasun-tekniko batzordea

ERRAUSKETARIK EZ
LURRA BASEERRIA HERRIA
BIZIRIK



I. Ukkuzola ARROZTEGIA

Konfiantzazko arrotza nahi baduzu,
etor zaitez gurera

- Era guztietako arrotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea



Oria etorbidea 4, behea

(Errekatxo jabetxearen ondoan) LASARTE

Tel.: 943 371 200 • 610 413 131

Albistea iruditan !!

Etiopiarako elkartasun bidea, zabalik

Artista talde bat elkartasun ekimen baten inguruan bildu, artelanak prestatu eta aste hasieraz geroztik harrera beroa jaso duen erakusketa batean esekita daude. Eskuragarri gainera, bakoitza 20 euroren truke. Bildutakoa Etioipian elkartasun proiektuak garatzen dabilen Angel Olanan hernaniarrari helaraziko zaio. Pelexekin batera, erakusketa hau antolatze lanetan jardun duten Ana Urdangarin eta Larraitx Izagirre herritarrak uztailean Etioipian izango dira.

Igandera arte zabalik egongo da, Barrenkalen udaletxe ondoko erakusketa aretoan: ostiralera arte, 18:30-20:30 artean, larunbatean 12:00etatik 14:00etara eta 18:30-20:30 artean. Igandean goizez, 12:00-14:00 artean.



BI ARTELAN EURO BATEAN ESKURA DAITEZKE. HORRETTARAKO TONBOLA MODUKO BATEAN PARTE HARTU BEHAR DA. ZOZKETA, IGANDEAN.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com
Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com
Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com
Publizitatea: Bea Alda, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK _____ 5. OR.

IKASTOLAREN EGUNA, IGANDEAN _____ 6. OR.

BURUNTZALDEKO KIROL ESKAINTZA _____ 10. OR.

JAIETARAKO HIRU ASTE FALTA DIRA _____ 12. OR.




Usurbilgo Udalak



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

LATAILLADE

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

ITURGINTZA

Aritzitxo 8, behea - 943 363 348 - 609 888 021



NEREA ZINKUNEGI

Merezi zuelako eta merezi dugulako

Zamarra ilunak, pisutsuak, panazko galtzak, forro polarra, galtzerdi lodiak, eskularruak, belarri ertzetako ospelak, zima luzeak, belaunetarainoko botak, zeru grisak... Txukun-txukun gurgildun plastikozko kaxan sartu eta zokora, datorren negua arte.

Gurgildun plastikozko kaxa ireki eta aurreko udazkenean txukun-txukun jasotakoak atera; kamiseta laranja, gorria, urdina, tiraduna, txankletak, sandaliak, pelukeri-rako zita, galtza piratak, motzak, jertse alaiak, kazadora arinak, bainujantzia... Zoko usaia dute eta jantzi aurretik labadoratik pasa beharko.

Urte zaharretan jandako azken mahatsaren hazi txiki bat darabilkit oraindik hagin tartean atera ezinik eta... udazkenik gabeko negua pasa ostean, hemen dugu berriro udaberriak gabeko uda. "El tiempo pasa, nos vamos haciendo viejos...", hau marka! Bizitza honetan denbora besterik ez eta ezertarako betik ez.

Badira gure etxeetan aldiro-aldiro errepikatzen diren

hainbat erritual; urtean behin pertsianak garbitzearena bezala, armairuak arropaz hustu eta ezer gutxi iraungo duen txukunketa egitea, lumadun edredoia tindategira eramatea, apaletako liburuei hautsa kentzea, bestelako aitzakia berezirik gabe gure hildakoei loreak jartzea, kotxeari olio begiratzea eta abar, eta abar (hanketako azkazalak moztea ez da errituala, ezta?).

Aurreko batean, igandez, maiatzaren 31n hain zuzen, Usurbilek erritual txiki bat egin zuen Mikel Laboaren omenez (aurretik idatzitako txapa aitzakia hutsa izan da honi heltzeko). Bertan sentitutakoa azaltzen ez naiz hasiko, gehienok bertan ginen, falta direnak izan ezik. Erritual txiki bat izaki handi bati, bere familiarari, lagun zaharrei eta gure buruei, merezi zuelako eta merezi dugulako plaza handi bat ireki diogu gure bihotz ttikietan Mikeli. Oso ideia polita nire uste apalean, baita oinezkoentzat jartzea ere, hori bai, errepideak zentzurik ez badu orain, kenduko dute, ezta?

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

UEMA eguna, larunbat honetan Beran

UEMAk urteroko eguna ospatu-ko du, larunbat honetan, Nafarroako Bera herrian. "Euskarak elkartzen gaituelako" lemapean, egun osorako ekitaldi sorta prestatu dute antolatzaileek. UEMAtik gogorarazten dutenez, euskaraz bizitzeko hautua egin duten udal kopurua boskoiztu arren, oraindik asko dago egiteko.

Urte hasieratik sei udalerrri batu dira UEMARA. Nafarroako Araitz, Etxalar eta Bera, Amezketa eta Elgeta herri gipuzkoarrak eta Busturia bizkaitarra. Hona hemen Beran prestatu duten egitaraua.

Goizean, txistulariak eta txaranga kaleetan zehar.

11:15 Herri kirolak.

11:30 Harrera instituzionala Berako Kultur Etxean.

13:00 Ekitaldi Nagusia.

14:30 Zikiro jatea Altxateko plazan.

15:30 Haur txokoa.

17:00 Pello Añorga ipuin kontalaria Altxateko ikastolan: "Kontu zahar eta berriak".

18:00 Dantzaldia Garraxirekin.

Oharra: bazkaritarako txartelak eskuragarri UEMAREN bulegoetan (943 260 372).

Hizkuntz kexak

jasotzeko buzoi berria, kiroldegian

Zabalik jarraitzen dute euskal-
dunon hizkuntz eskubide urra-
ketak salatze herrian jarrita dauden
buzoiak: udaletxean, Sutegin,
NOAUA!n, eta Urbilen.
Aurrerantzean bosgarren bat ere
egongo da, Oiaro kiroldegian hain
zuzen.

Buzoiez gain, Behatokiak zabalduta-
tako beste bi bide ere badaude: 902
194 332 telefono zenbakian eta
euskararentelefonoa.com webgunean.

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, I.EBK 943372937 • 659602789

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE
Obaba kalea 29 • ASTEASU
943 69 68 52 • 620 800 186

Irregularitasunak Europako Legebiltzarrerako botoen zenbaketan

Iniziatiba Internazionalista-Herrien Elkartasuna alderdiak salatu duenez, irregularitasun ugari izan ziren igandean, Europako Legebiltzarrerako hauteskunde egunean. Tartean, Usurbilen bertan. Iniziatibaren boto batzuk ez zituztela kontatu, besteak baliogabe edo txuri jo zituztela, edota beste talde batzuen (DN, PACMA, UNA, POSI...) zakura bota zituztela salatu dute.

Eskuartearen ditugun datuen arabera (behin behinekoak), **Iniziatiba Internazionalista** izan zen igandeko hauteskundeetan alderdi bozkatuena, 806 botoekin (2004an, 655 boto zenbatu zituen Ezker Abertzaleak).

EAJ-PNV bigarren izan zen, CEU koalizioan aurkeztu da aurten eta 369 boto lortu zituen igandean (2004an, 436 atera zituen).

Aralar eta **EA** koalizio zabalago batean joan ziren ere, beste alderdi batzuekin batera. Usurbilen, 195 boto atera zituzten (duela 5 urte, elkarren bozkak zenbatuz, 375 batu zituzten).

PSE-EEK 2004ko emaitza bera lortu zuen, 279 boto (2004an, 277

ALDERDIA	2009	2004
Iniziatiba I.	806	655*
EAJ-PNV	369	436
Aralar-EA	195	375**
PSE-EE	279	277
PP	95	116
EB	19	45
Besteak	27	13
GUZTIRA	1.790	1.262
Baliogabeak	7	658*
Zuriak	8	9
Errolda	4.713	4.581
Abstentzioa	2.908	2.652

* 2004an, Ezker Abertzaleak HZ zerrendarako botoa eskatu zuen. Legez kanpo utzi zuten HZ. Aurten, Iniziatibaren aldeko botoa eskatu du.

** 2004an, Aralar eta EA aparte aurkeztu ziren. Kopuru hori, 2004an bien artean lortutako emaitza. Aurten, koalizioan joan dira.

boto bildu zituzten).

PPk 95 boto (116 boto 2004an).

Ezker Batuak, azkenik, 19 boto atera zituen igandean (2004an, 45).

Euskara ikasi dutenentzako diru-laguntza deialdia

Udalak 2008/2009 ikasturtean euskara ikasi dutenentzat eta UEUko ikastaroak egingo dituztenentzat diru-laguntza deialdia egin du. Eskerak aurkezteko epea ekainaren 15etik 30era bitartekoa izango da (biak barne).

Udaletik oso garrantzitsua ikusten da herritarrek euskara ikastea. Horrexegatik hain zuzen ere, herritarrei euskara ikasteko ematen zaizkien dirulaguntzen kopuruak garrantzitsuak dira:

-Euskara ikasleek: matrikula-kostuaren %80a jaso dute.

-Euskara ikasleak: 12 urtetik beherrako seme-alabak dituzten gurasoek: matrikula-kostuaren %100a.

-Euskara ikasleek: langabetuek: matrikula-kostuaren %100a.

-UEUko ikastaroak egin dituztenek: matrikula-kostuaren %60a jasoko dute.

Aurtengo dirulaguntza-deialdian, berrikuntza gisa aipatu behar da autoikaskuntza sistema bidez euskara ikasi duten herritarrek ere dirulaguntza jasotzeko aukera izango dutela.

2009-12 Ekonomi eta Finantza plana onartu da, defizit egoerari aurre egiteko

2012rako defizit egoera gainditzea da, pasa den maiatzaren 26ko osoko ohiko bilkuran onartu zen Ekonomi eta Finantza planaren helburu nagusia. 2009ko udal aurrekontuak hain zuzen, defizit egoeran aurrera atera izanak eragin du plan hau prestatu eta onartzea.

Batzordean onartu eta osoko bilkurara eramandako proposamena gobernu taldeak babestu zuen. PSE-EE eta Aralarako zinegotziek abstentziora jo zuten. Aurka bozkatu zuten EAJ-PNV eta EAko udal

ordezkariak. EAko udal ordezkariak aurkeztutako proposamenarekin ez zuten bat egin, euren esanetan, "koherentzia mantendu nahirik".

Diru sarreraren jaitziera

Gogorazi zuten, aurtengo udal aurrekontuen aurka bozkatu zuten eta aipatu plana gaiari lotua dago. Iñaki Illarramendik ere aurka bozkatu zuen, besteak beste, EUDELeK iragarri moduan, diru-sarreretan %20ko jaitziera izango zela gogorarazi baitzuen.

Txaramuntoko etxeak, 50 urtez alokairuan

Txaramuntoko alokairuko etxebizitzak zozketako emaitzak aho batez onartu zituzten udal ordezkariak, azken osoko bilkuran. Guztira udal jabetzako 12 etxebizitzak zozketatu dira, garaje eta guzti. Esleipen eta itxarrote zerrendak udaletxeko iragarki taulan jartzekoak ziren. 12 etxebizitzak lau kupo ezberdinetan banatuta zeuden.

Osoko bilkura berean, aipatu hama-bi etxebizitzak gutxienez 50 urtez alokairuan izateko konpromisoa ere hartu zuen udalbatzak.

Ikastolaren Eguneko haur jaialdia, ilusioz eta elkarlanez jositako bi hamarkada

Gela barruan egindako lan hura jendaurrean plazaratzea erabaki zutenetik, hogeitau urte bete dira. Ilusioz betetako bi hamarkada igaro dira Ikastolaren Eguneko lehen haur jaialdi hartatik. Ikasle, irakasle, guraso edota udal langileen elkarlana giltzarria izan da. Igande honetan, ekainak 14, emozioak pil-pilean egongo dira beste behin. Aurtengoa, ikuskizun berezia izango da gainera; hogeitau urteotako emanaldien pasarte onenen bilduma. Hitzordua, Oiardo kiroldegian, 12:00etan hasita.

Gurasoen ilusioa, haurren urduritasuna eta irakasleen emozioa nahasten diren uneak bere tartea du urtero, Ikastolaren Egunean. Hauteskunde europarrak direla eta aurten astebete atzeratu eta beraz, igande honetan, ekainaren 14an ospatuko den jaialdiko protagonistak beste behin, Haur Hezkuntzako ikasleak izango dira.

IKASITAKOIA, ERAKUTSI

“Gela barruan gauza politak egiten dira eta hori guztia erakutsi egin behar zela iruditzen zitzaigun”

Urtero legez, Oiardo kiroldegian ikuskizun ederra eskainiko dute, bertaratuko diren senitarteko, lagun edota irakasleen aurrean.

Urte guztietako pasarte onenak

Igandeko emanaldia berezia izango da ordea. Aipatu jaialdia antolatzen hasi zirenetik hogeitau urte beteko baitira aurten. “Urte guztietako onena hartuta osatu dugu aurtengoa”, diote emanaldi hau buru-belarri prestatzen



1996AN, ZIRKOA IZAN ZEN IKASTOLAREN EGUNERAKO IKASLEEK PRESTATU ZUTEN JAIALDIA.

aritu den Haur Hezkuntzako irakasle taldeak. Urtemuga berezi honekin, jaialdiaren berezitasun nagusi izan den elkarlanari aipamen berezia egin nahi diote.

Gela barrutik, plazara

Hasieratik, HH-ko irakasleak izan dira ekimen honen eragile nagusiak. Gaur egun ezagutzen dugun jaialdia duela bi hamarkadatik ospatzen hasi arren, lehenagotik ere ikasturte amaieran egiten zen bestelako ospakizunik ere. “Gela barruan gauza politak egiten ziren eta hori guztia erakutsi egin behar zela iruditzen zitzaigun”, diote irakasle beteranoek.

Ordutik antolatzaileen artean erreleboa hartu dute irakasle berriek; bitxikeria moduan, tartean dira lehen urte haietan jaialdian parte hartu zuten ikasleak, bere garaian eurei irakatsitakoa egun belaunaldi berriei helarazten. Jaialdi ludikoa izatez gain, haurrentzat hezigarria ere bai baita Kiroldegiko emanaldia, irakasle taldearen aburuz. “Zain egoten, ikus-

kizuneko parte hartzaile baina ikusle izaten ere ikasten dute”, adierazi dute.

Ekitaldi jendetsuenetarikoa

Haur Hezkuntzako ikasleek gustura parte hartzen dute emanaldian. Adinak ere hor prozesu bat ere islatzen baitu emanaldian. “Txikienek guk esaten dutela egiten dute, negarrez batzuk. Baina bost urtekoak jada konturatzen dira, oso garbi dute zer egiten ari diren eta gustura aritzen dira”, gaineratu dute irakasleek.

Aurten ere Kiroldegira jende andana hurbilduko da. Ezin zenbatu guztiak, baina ez dira gutxi izaten. HH-ko irakasleen hitzetan, “Udal langileek esan izan digutenez, herrian egiten den ekitaldirik jendetsuenetako bat da”. Eskerrak eman nahi dizkiete, urteotan jaialdia ikustera joandako guztiei. Ospakizuna igandean burutzeak ere badu zerikusirik, apropos jarritako eguna baita, lanean dabilzan gurasoek ikuskizunaz gozatzeko aukera izan dezaten.

Hogei urte, hogei gai desberdin taularatzeko

Ikastolako plazatik gerora, 1992an Oiardo kiroldegira, Ikastola Egunekoa urtez urte handitzen joan den jaialdia izan da. "Urtero maila geroz eta gorago jarri dugu. Ezin dugu jaitsi", adierazi du irakasle taldeak. Hala, muralak eta mozorroak diseinatu, koreografiak prestatu eta entsegu saioak egin...

Jaialdia ospatu baino lehenagotik lan handia hartzen dute HH-ko irakasle, ikasle eta gurasoek. Guztia, kalkulatzeko dutenez, jada 800 bat haurrek parte hartu duten jaialdia burutzeko.

Bazkaritarako txartelak, salgai ostiralera arte

Ikastolaren Egunean pilotalekuan burutuko den herri bazkarira joan nahi duenarentzat txartelak salgai daude ikastolako idazkaritzan. Helduek 20 eurotan, ikasleak 10 eurotan. Txartelak eskuratzeko azken eguna, ekainaren 12a izango da.

Hona hemen hogei urteotako gai zerrenda.

1989-2009

20 URTE, 20 JAIALDI

- 1989- UDABERRIA
- 1990- HERRIKO FESTA
- 1991- AFRIKA
- 1992- ITSASOA
- 1993- EUSKAL JAIA
- 1994- UDARREGI FILM
- 1995- MENDIA
- 1996- ZIRKOA
- 1997- JOSTAILUAK
- 1998- ORTZIA
- 1999- LANBIDE-LAN
(Eta gu handitan zer?)
- 2000- KONTU KONTARI
KANTA KANTARI
- 2001- GARRAIOAK
- 2002- ITSAS BARRENA,
ITSAS ONDOA
- 2003- HAI-SU, UR-LUR
(Lau elementuak)
- 2004- UDARREGI PARK
- 2005- UDARREGI JATETXEA
- 2006- ERDI AROA
- 2007- BOLON BAT ETA
BOLON BI
- 2008- NOR DA INDARTSUENA?
- 2009- MAKRO EKITALDIEN
20. URTEURRENA



GURASO, IKASLE ETA IRAKASLEAK, PATXI PEREZEKIN DANTZAN, 2006KO IKASTOLAREN EGUNEAN.

Ekainak 14 igandea Ikastolaren Eguna

9:00 Albokariaren esnadeia.

9:00 LH eta DBHko ikasleen jokoak.

10:00 LH eta DBHko ikasleen eskularen erakusketa.

12:00 HHko haurren jaialdia
Kiroldegan: "Makro ekitaldien 20.urteurrena".

14:30 Herri bazkaria eta bazkal ondorengo girotzea frontoian.

Ingurugiroa, jolas eta ikasgai

Ekainaren 5ean ospatu zen Ingurumenaren Nazioarteko Egunean, sentsibilizazioa bultzatzeko gunean bihurtu zen Askatasuna plaza. Udalak antolatutako tailer eta jokotan parte hartzeko aukera izan zuten gaztetxoek.

Egunerokotasunean egin ohi diren gehiegikeriez ohartu, etxe ekologikoa nola lortu litekeen ikasi edota energia berriztagarriak bultzatzeak ekar ditzakeen onurak ardatz hartuta, Udalak zenbait joko eta tailerretan parte hartzeko gonbita luzatu zien ekainaren 5ean gaztetxoiei.

Tartean, etxe barruan ekologia mailan egin ohi diren huts egite desberdinak identifikatzen saiatu ziren parte hartzaileak. Hanka sartzeetatik zer ikasia egon ohi da eta. Kontsumo arduratsua bultzatzea zen aipatu tailerretako beste helburu bat.

Ezin ahaztu ezta aldaketa klimatikoaz ere. Bere zergatiak eta ondorioez jabetzeko, bizikleta zirkuito bat zabaldu zen Askatasuna plazan.

Beste energia iturriak

Irtenbide gisa planteatu ohi diren energia berriztagarriek ere bere tartea izan zuten. Tailer baten bidez, berote-



EKAINAREN 5EAN OSPATU ZEN INGURUMENAREN NAZIOARTEKO EGUNA.

gi-efektuko gasak eta kutsatzaile azido-tzaileen isuria gutxitzeko aipatu energia iturrien beharraz ohartarazi nahi zuen Udalak.

“Zerrendak goizegi ireki ziren”

Aurreko astean aipatu genuen bezala, Olarriondo eta Ugartondo eremuetan eraikitzeakoak diren etxebizitza proiektuak etenda daude. Kiroldegian Udalak egindako agerraldian, herritarrek hitza hartzeko aukera izan zuten. Hemen dituzue galdera horietako batzuk eta udal agintarien aldetik, eman ziren erantzunak.

- Etxebizitzak ezin badira zozketatu, zergatik ireki ziren izen emateko zerrendak?

Zergatia ezin zutela azaldu erantzun zitzaien hizlarien mahaitik. Edozein kasutan, plan partziala amaitu gabe dagoen honetan, alkatearen hitzetan, “jorratzeke bide luzea dago”. Edozein kasutan, zerrendak goizegi ireki zirela zehaztu zuen.

- Bete beharreko baldintzak egun herritar zenbaitek ez dituzte betetzen, beste batzuk bai. Zerrendak berriz irekitzeko asmoa duzue?

Oraingoz erabakirik ez dela hartu erantzun zuen alkateak. Egoerak aurrera begira, zer bide har dezakeen ezin denez jakin, zerrendak bere horretan mantentzeko asmoa du Udalak. Horrek egoera injustuak eragitea dakarrela aitortu zuen alkateak.

Gerta daiteke eta, zerrendak ireki zirenean izen emateko baldintzak betetzen zituzten zenbait herritarrek, egun aipatu oinarri horiek ez betetzea, eta alderantziz.

- Udalak ba al du promotoreak estutzeko modurik?

Bide posible bat zein zen argitu zuen alkateak: “gastuak sortzea”. Edozein kasutan, egungo egoera gainditzeko esperantza apur bat eman dezakeen irtenbide bakarra, hirigintza alorreko agentea jartzea litzateke alkatearen ustez (Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin elkarlanean, egitasmoa aurrera eramateko ardura bere gain hartuko lukeen agente urbanizatzailer bat jartzea).



KIROLDEGIAN EGIN ZEN BILKURAN HERRITARREK EUREN ZALANTZAK ARGITZEKO AUKERA IZAN ZUTEN.

- Herrian dauden etxebizitza hutsekin ezin liteke ezer egin?

Horri erantzunez, alkateak etxebizitzaren arazoari dagokion irtenbidea alokairu sozialaren bidetik etorriko dela erantzun zuen.

Bide horretatik egingo du apustua gobernu taldeak, Kiroldegiko bilkuran azpimarratu zenez; lokal komertzialak etxebizitza bihurtzeko ordenantza onartuta edota alokairu sozialeko etxebizitzak bultzatuta.

Egoera ekonomikoak itotako negoziazio prozesua

Ondo hasitakoak ez du zertan beti modu berean amaitu behar. Ustez, arazorik gabe hasitako prozesuak etenda amaitu du. Borondateetik adostasun gabeziara igaro da egoera, eta tartean etxebizitzak eraiki ezinik, eta zerrendatan izena eman zuten herritarrek zain. Kronologikoki, bilakaera hau izan dute Olarriondo-Ugartondoko promozioek.

2008/3/13: lehen bilera promotoreekin. Promotoreek etxeak egiteko borondatea agertzen dute. Itxuraz, arazorik ez.

2008/10/22: lehen aldiz finantziario arazoak eta gastuak gutxitzeko beharra agertzen dute promotoreek. Halere, etxeak eraikitzeko borondatea berresten dute.

2009/1/22: egitasmoa finantzatzeko dirurik ez dutela eta garatzeko ezintasuna adierazten dute promotoreek.

2009/1/29: promotoreek idatzi bat aurkezten dute, sektorea garatzeko urtebeteko luzapena eskatuz.

2009/2/12: promotoreen idatzia

aztertzen du Udalak. Ahaleginak egiteko borondatea agertzen du Udalak. Egitasmoa bideragarri egiteko gutxienezko puntuak hitzartzea adosten da.

2009/2/27: bost promotoreen idatzia, jabeekin izenpetutako hitzarmenaren aipamenak kentzeko eskatuz.

2009/3/10: finantziario arazoak direla eta, Udalak garapena bideratzeko proposamen bat aurkezten die promotoreei.

2009/3/26: promotoreek Udalak egindako proposamena moldatu nahi dute eta berea aurkezten dute.

2009/4/4: promotoreen proposamena ez da onartu. Egitasmoa bideragarria da, etxebizitza babestuen eraikiz. Promotoreei, haien arteko adostasuna gordez, proposamen berri bat landu eta aurkeztea eskatzen zaie. Udalak egitasmoa bideratzeko malgutasuna eskaintzen die.

2009/4/28: sustatzaileek ez dute ezer adostu ezta landu. Negoziazioak bertan behera uzten dira.

Antzerki topaketa Aginagako ludotekan

Donostialdeko Eskola Txikiak Aginagan elkartu ziren aurreko astean. Antzerki topaketa antolatu zuten elkarren artean eta giro ederrean igaro zuten eguna.

Aginagako ludotekan, Zubieta, Aia, Ereñozuko eta Aginaga bertako eskola txikiek antzerki saio bana eskaini zituzten.

Aginagakoek "Zergatik bizi da Txanogorritxoren amona basoan?" antzezlan taularatu zuten. Zubietakoek dantza afrikarra, Aiakoek "Autobus geltokian" izeneko antzezlan eta Ereñozuko eskolakoek Txirritaren bizitza bertsotan kontatu eta kantatu zuten.

Aginagako Eskola Txikiak esan digutenez, "oso giro ederrean eta alaiean ospatu ziren topaketak eta ikasle eta ira-



ZUBIETAKOEK DANTZA AFRIKARRA ESKAINI ZUTEN.

kasleen artean 80 pertsona" elkartu ziren. Topaketei bukaera emateko, Aginagako guraso elkarteak bazkaria prestatu zuen bertaratu ziren guztientzat.

Aginagako Udako Txokoei dagokionez, ekainaren 19an amaituko da izena emateko epea. Ondorengo telefonoetara deitu behar da: 676 163 506 (Dolo) edo 600 484 948 (Manuel).



“Bazen garaia benetan birziklatu ahal izateko”

BIRZIKLAPENA
ATEZ ATEKO SISTEMAREKIN
%76
zabortegi ekiditen du: **BAI**
errauste-planta ekiditen du: **BAI**

BIRZIKLAPENA
KALEKO EDUKIONTZIEKIN
%28
zabortegi ekiditen du: **EZ**
errauste-planta ekiditen du: **EZ**

Usurbilen atez ate, Gipuzkoan arnas bete.

Usurbilen ezarritako atez ateko zabor bilketa sistemarekin, hondakinen **%76a** birziklatzea lortu dugu. Horri esker, alde batera utziko ditugu zabortegi zaharrak, eta, gainera, ez da errauste-plantarik behar. Zergatik jarri osasuna arriskuan inolako beharrik gabe?

osasuna atez ate





LASTER MARTXAN JARRIKO DIRA KIROL IKASTARO UGARI

Buruntzaldeko ikastaroekin, udan ere sasoiko

Osasuna urte osoan zaintzea aholkatzen badigute ere, datozen hilabeteotan gutako askok zeregin horretarako aitzakia gutxiago izango dugu. Denbora, eta eguraldia lagun, baita aukera gehiago ere, besteak beste, kirol pixka bat egiteko. Gertu gainera, Buruntzaldeko kirol-

degietan antolatu diren ikastaroetan izena eman beste-rik ez dugu. Eskaintza anitza da, eta kirol jardueraren batean aritzeak dakartzan onurak are gehiago. Buruntzaldean urte luzez lan egin izan duen Manu Zubillaga kirol medikuak adierazi bezala.

Kirola egitea osasungarria izan ohi da beti. Uda parteko jarduerak zer berezitasun dituzte?

Manu Zubillaga: Udak naturarekin lotura duten kirol jarduerak egiteko aukera ematen digu. Neguan normalean barruan egiten dira ekintzak. Kanpoan egite horrek aukera gehiago ematen dizkigu. Nola eta zenbateraino egiten dugun, horren arabera osasuntsuagoa izan daiteke, edo ez.

Kirola egiteak dakartzan onurak ez dira eta gutxi?

M. Z. Kirolak baditu onura fisiko zein psikologikoak. Behar bada, udan onura fisikoa antzekoa izan arren, kanpoan kirol jardueraren bat egiten aritzeak garbi dago beste alaitasun bat ematen digula. Alderdi psikologikoan egongo litzateke aldea.

Uda garaiko kirolaririk badagoela esango zenuke?

M. Z. Beharbada geroz eta gutxiago. Garai batean ez bezala, orain argi dago urtean zehar eskaintza handia dagoela eta udan kirola egiten duenak, neguan ere zerbait egiten du. Baina oraindik badira batzuk, neguan ezer egin ez eta bat batean hasten dena korrika hondartzan, igerian, surfean, bizikletan... Arazoak askotan hortik datoz. Pisu kontuekin edo norbere itxurari lotuta, astakeria asko egiten dira uda partean.

Astakerien muga non jar liteke?

M. Z. Muga hori jar liteke, baina orokorrean ezin liteke esan zer den astakeria eta zer ez. Adibidez, Aizkorriko maratonia, 42 kilometro gora eta behera. Astakeria bat da hori? Niretzat bai, ziur. Han egon zirentzat? Beharbada ez. Urte guztian eta askotan halako proba baterako prestatzen dihardute eta. Gehiegikeriak bezala, aipatu muga oso pertsonala da. Norberaren muga hori



MANU ZUBILLAGA KIROL MEDIKUA, ZARAUTZEKO BERE KONTSULTAN.

non dagoen jakitea interesgarria izaten da.

Zein dira ohiko gehiegikeriak?

M.Z. Udari lotuta, oso garbiak eta nabariak izaten dira. Negu guztian zehar ezer egin ez duena, hondartzan sabela erakutsi behar eta maiatza aldera gehiegikeriak egiten hasten dena, neurritz kanpoko kirol jarduera edota neurritz kanpoko dieta bati ekiten diona. Lesio asko etortzen dira gero. Halere, geroz eta gehiegikeria gutxiago egiten dira.

Bide onetik goaz beraz?

M. Z. Seinale ona da. Asko aurreratu dugu, kirol kultura horretan. Jendeak geroz eta gehiago daki eta gehiegikeria gutxiago egiten dira.

Zalantzan dagoen horri begira. Nola animatu uda honetan kirola egitera?

M. Z. Animatea ez da batere erraza baina zera esango nieke; ezetz egin? Kirola, probatu egin behar da, zer onura dakartzan ikusteko. Onura psikologiko zein fisikoa segituan nabaritzen da. Kirola egiteko, probatzeko esango nieke, eta gero hitz egingo dugula. Hori bai, beti neurrian eta jakinez nor garen eta zer egingo dugun.

Kirola euskaraz egiteko programa Buruntzaldean

Egitasmo horren barruan, bailara emailan antolatzen diren ikastaroetako parte hartzaileen hizkuntz gaitasun eta erabilera neurtzeko datu bilketa egin ohi dute.

Bestalde, eskola-kirolari lotutako liburuxka prestatzen dute gurasoei banatzeko. Kontratazio eta esleipenentan, hizkuntza betebeharren jarraipena egiteaz ere arduratzen dira. Beste eskualdeetan kirol elkarteei emandako diru-laguntzetan finkatzen diren hizkuntz irizpideei buruzko informazioa ere jasotzen dute.

Webgunea eskura

Kirolari gipuzkoarren gorabeherak, han eta hemen herrialdeko erakunde desberdinek antolatzen dituzten ikastaro edo bestelako ekimenak, argitalpen eskaintza, beken inguruko informazioa...Kirola eta euskara ardatz gisa hartuta Foru Aldundiak duen web orrian aurki ditzakegun edukietako batzuk dira. Hona hemen helbidea: kirolaeuskaraz.net

**Allurralde Andoain** 943 300 147 allurralde@andoain.org

Haurrentzako jarduerak

JARDUERA	TXANDA	EGUNAK	ORDUAK
Igeriketa: 2005-06an jaiotakoak: hastapena eta ludoteka ikastaroak	Ekainak 29-uztailak 10 Uztailak 13-24	Egunero	10:30, 17:00
Igeriketa: 2003-04an jaiotakoak: hastapena eta ludoteka ikastaroak		Egunero	11:30, 18:00
Igeriketa: 2002tik aurrera jaiotakoak		Egunero	12:30, 16:00
Igeriketa: Haur txikiak	6-18 hilabete 19-36 hilabete	Ekainak 29-uztailak 24	Astf. eta astz. Astr. eta ostg. 16:00
Areto txirindularitza	Ekainak 29-uztailak 24	Astr. eta ostg.	9:45, 15:15, 19:15, 20:15
Fit-pumpa	Ekainak 29-uztailak 24	Astf. eta astz.	15:15

Haur eta gazteentzako jarduerak

JARDUERA	TXANDA	EGUNAK	ORDUAK
Tenisa	8-11 urte	Uztailak 13-24	11:00
	12-16 urte	Ekainak 29-uztailak 10	Egunero
		Uztailak 13-24	12:00
Areto txirindularitza	12-16 urte	Ekainak 29-uztailak 24	Astearte eta ostegunetan
Aerobika	12-16 urte	Ekainak 29-uztailak 24	10:45
Eskalada	8-11 urte	Ekainak 29-uztailak 10	Egunero
	12-16 urte	Uztailak 13-24	

GOIZEAN KIROLEAN

JARDUERA	TXANDA	EGUNAK	ORDUAK
Tenisa, futbola, pilota, igeriketa...	8-11 urte 12-16 urte	Ekainak 29-uztailak 10 Uztailak 13-24	Egunero
		Uztailak 13-24	9:30-13:00

Helduentzako jarduerak

JARDUERA	TXANDA	EGUNAK	ORDUAK
Igeriketa	Ekainak 29-uztailak 10 Uztailak 13-24	Egunero	Hastapena: 8:30, 19:00 Hobekuntza: 9:30, 20:00
Aquagyma	Ekainak 29-uztailak 24	Astf., astz. eta ostr.	9:15
Aerobika		Astr. eta ostg.	19:30
Funkya		Astf., astz. eta ostr.	10:30, 19:30
Areto txirindularitza		Astf. eta astz.	18:30, 20:30
Fit-pumpa		Astr. eta ostg.	9:45, 15:15, 19:15, 20:15
		Astf. eta astz.	15:15
Fit-balance: Taichi, Pilates		Astr. eta ostg.	9:45, 20:00
		Astf. eta astz.	9:30
		Astr. eta ostg.	18:00, 19:00
Yoga			Astr. eta ostg.
Eskalada	Ekainak 29-uztailak 10	Astf. eta ostg.	19:00, 20:15

Urnieta 943 008 328 kirol@urnieta.org xamad@urnieta.org

JARDUERA	TXANDA	EGUNAK	ORDUAK
Tenisa	8-16 urte	Ekainak 29-uztailak 10 Uztailak 13-24	10:00, 11:00, 16:00, 17:00, 18:00
Igeriketa	3-4 urte	Hastapena: ekainak 29-uztailak 10 eta uztailak 27-abuztuak 7	12:00-12:25 12:30-13:00
	5-6 urte	Hobekuntza: uztailak 13-24 eta abuztuak 17-28	11:00-11:50
	7-12 urte		13:00-13:50
Surla	Uztailan	Hamar egun	Eguneko ordubete
Patinajea Saleslar ikastetxean	Abuztuak 17-21	Egunero	17:30-19:30

Lasarte 943 376 182 kirolak@lasarte-oria.orgBulego ordubetea: astf.-ostr.,
10:09-12:30 / 17:00-19:00

Haurrentzako jarduerak

JARDUERA	TXANDA	EGUNAK	ORDUAK
Uretako festa	5-12 urte	Ekainak 25	Osteguna
Jostakiroa, TTAKUNekin elkarlanean	HH5-LH6 arteko haurrak	Uztailak 3-24 Abuztuak 4-27	Astean zehar Goizez
Haurboentzako igeriketa	12-24 hilabete	Uztailak 4-31 Abuztuak 31-irailak 26	Astf. eta astz. Astr. eta ostg. 10:00-10:30
	6-12 hilabete		Ostr eta lar.
Igerian ikastea	04-05ean jaiotakoak	Uztailak 6-31 Abuztuak 31-irailak 25	11:30, 17:15
	02-03an jaiotakoak		10:30, 18:15
	> 7 urte		19:15

Gazteentzako jarduerak

JARDUERA	TXANDA	EGUNAK	ORDUAK
Indoor txirindularitza	> 12 urte	Uztailak 1-30 Irailak 1-30	Astf. eta astz. Astr. eta ostg. 9:00, 18:30, 19:30
Pilates	> 12 urte	Uztailak 1-30 Irailak 1-30	Astf. eta astz. Astr. eta ostg. 9:00, 19:30, 20:30
Tonifikazioa	> 12 urte	Uztailak 2-30 Irailak 1-29	Astr. eta ostg. 10:30, 19:30
Aerobika	> 12 urte	Uztailak 1-29 Irailak 2-30	Astelehen, asteazkenetan 10:00, 19:30
Igerian ikastea	Helduak	Uztailak 6-31 Abuz. 31 - irail.25	Astf. - ostr. 7:10, 20:00
Aquaerobika	> 12 urte	Uztailak 1-29 Irailak 2-30	Astf. eta astz. 20:30
Aquagyma	> 12 urte	Uztailak 2-30 Irailak 1-29	Astr. eta ostg. 9:00
Piragua ikastaroak Kaskardi kirol elkartek antolatuta: 636 439 635 / 677 488 910	> 12 urte	Uztailak 6-11	Egunero 16:30


Oiardo Usurbil 943 372 498 kirolpat@usurbil.net

Gazteentzako jarduerak

JARDUERA	TXANDA	EGUNAK	ORDUAK
Igeriketa	Uztailak 6-24	Astf. - ostr.	10:00-13:00
Herri kirolak			
Pilota			
Mendi bizikletekin txangoak			
Eskulanak			
Jolasa, txapelketak			

Helduentzako jarduerak

JARDUERA	TXANDA	EGUNAK	ORDUAK		
Igeriketa hastapena	Uztailak 6-24	Astf. - ostr.	9:00-9:50		
Igeriketa hobekuntza			Astf., astz. eta ostg.	20:00-20:50	
Mantente gimnastika			Astf., astz. eta ostr.	9:00-9:50	
			Astr. eta ostg.	20:00-20:50	
Aerobik			Astr. eta ostg.	9:00-9:50	
			Astf. eta astz.	19:00-19:50	
Pilates			Astf. eta astz.	15:00-15:50	
			Astr. eta ostg.	19:30-20:20	
Spinning				Astf. eta astz.	20:00-20:50
Power dunbell				Astf. eta astz.	20:00-20:50



Jaietarako hiru aste baino ez dira falta

Asteburu bakar batean ospatuko dira herriko festak. Uztailaren 1ean asteazkena, Santixabel bezperan hasi eta uztailaren 5a bitarte, kirola, musika eta gastronomiarekin lotutako hitzordu ugari iragarri dira.

Aurreko astean egin zen Jai Batzordeko bileran jaietako egunez eguneko egitaraua zehaztu zen. Hemen dituzue, aurrerapen moduan, hitzorduetako batzuk.

Bestetik, Aitor Egileta, Mikel Bengoetxea eta Axier Otegik egindako egitarau-diseinua izan da Jai Batzordeak aukeratu duena.



UZTAILAREN 1EAN. BURUHANDIEKIN ETA MASKOTA IGBTZEAREKIN BATERA HASIKO DIRA FESTAK 19:00AK ALDERA. ORDU BEREAN, HELDUEN DANBORRADA ABIATUKO DA ETA ASKATASUNA ETA ARTZABALGO TXOSNAK ZABALDUKO DIRA.



UZTAILAREN 2AN, SANTIXABEL EGUNEAN, ORGANDAREN INAUGURAZIOA EGINGO DA MEZA NAGUSIA ETA GERO. GARAI HORRETAN ABIATUKO DA UMEEN DANBORRADA. ARRATSALDEZ EGINGO DA II GOITIBEHERA LEHIAKETA.



UZTAILAREN 3A, OILASKO BILTZAILEEN EGUNA. HAURREN PINTURA LEHIAKETA EGINGO DA GOIZEZ. GAUEZ, KLIP SAIDA ARTZABALEN, DJ BULL ASKATASUNA PLAZAN ETA FRONTOIAN, MENDEKU ITXUA, ESNE BELTZA, TED DIAMOND.



UZTAILAREN 4AN, GOIZETIK JOLASAK GAZTETXOENTZAT DEMA PLAZAN, KIROLDEGIAN ETA DEMA PLAZAN. EGUERDIAN, ZIKIRO JANA TXOSNETAN. EGUNEAN ZEHAR ETA BERTSO SAIDAN ERE, ERREPRESALITUAK IZANGO DITUZTE GOGOAN.



UZTAILAREN 5EAN, HERRI KIROL UGARI IRAGARRI DIRA: BINAKAKO AIZKOLARI TXAPELKETA, EMAKUME HARRIJASOTZAILE TXAPELKETA, HARRI HANDIEN GIZONEZKO TXAPELKETA, IDI-DEMA... ETA IAZ BEZALA, ZALDI LASTERKETA.

Martxan jarri zenetik, bus-taxiaren erabilera handituz joan da

Udazkenean lehen joan etorria egin zuenetik, gorantz egin du landa eremua herri kaxkoarekin lotzen duen bus-taxi zerbitzuaren erabilerak. Santueneko auzokideak, edota 50-80 urte arteko emakumezkoak dira, Behemendik eta Udalak elkarlanean abian jarritako garraiabidea gehien erabiltzen dutenak. Egunero bataz beste, 22-23 bidaiari igotzen dira bus-taxira.

Landa ingurunea eta herri gunearen arteko distantzia txikiagotu edota bi eremuak elkar gerturatzea zen bus-taxia martxan jarrita Udalak bete nahi zuen helburua. Orduetik zortzi hilabete igaro dira, eta beharra bazegoela antzeman liteke, Behemendik kaleratu dituen erabilera datuak aintzakotzat hartzen badira behintzat.

ERABILERAK GORA EGIN DU

“Martxan jarri zenetik hona, erabilerak gora egin du etengabe. Beharra bazegoela ondorioztatu daiteke”

Azken hilabeteotako eguraldi makturak bereziki adineko bidaiaren artean eragina izan badu ere, hilabetez hilabete goranzko joera nabarmena izan du bus-taxiaren erabilpenak. Azaroan 117 bidaiari izatetik, igaro den martxoan 675 izatera pasa zen garraio zerbitzu berria.

Bidaiarien artean, Santueneakoak nagusi

Nagusiki auzoetatik herri kaxkora joan etorria egiteko igo dira herritarrak bus-taxira. Bidaia ohikoena; Santuenetik herri kaxkora joan eta beranduago itzultzea. Hain zuzen, aipatu auzoko bizilagunak dira tarte handiz, hilabeteotan garraio zerbitzu berria gehien erabili dutenak. Bidaiarien %64,2a Santuenean igo da bus-taxira.

Herri kaxkora gerturatzeke Udalak



ABUZTUAN ZERBITZUA ETEN EGINGO DA, EZ DA BUS-TAXIRIK IZANGO. ETA UZTAILEAN, GOIZEZ IBILIKO DA SOILIK; AZKEN ZERBITZUA, 13:00ETAN ESKAINIKO DA. ARRATSALDEETAN EZ DA BUS-TAXI ZERBITZURIK IZANGO.

eta Behemendik elkarlanean martxan jarritako garraiabidea baliatzen dutenen artean, 50-80 urte arteko emakumezkoak daude, baita gizonezko batzuk ere. Oro har, astean behin edo bitan erosketak egin, medikua bisitatu, bankura joan edota beste zeregin batzuetarako tarte hartzen dutenak izango liriteke. Halako kasuetan zamarekin egin behar izaten dute joan etorria, eta batzuk euren etxeetara bila joateko eskaera egin izan dute.

Gogoan izan, bus-taxiak egunero bete beharreko ibilbide finko bat du. Aldiz, geltokia urruti izan edo mugikortasun arazoren bat duenak, alde aurretik deitu eta hitzordua finkatzen badu, bus-taxia bere bizilekuraino gerturatuko zaio. Telefono zenbakia honakoa da: 630 643 596 (Maribel).

Azoka egunean, mugimendu gehien

Eguneko lehen eta azken bus-taxi zerbitzuek dute bidaiari eskaririk handiena, erabilpenaren ehunekoak %25-30 izateraino. Halere, goiz erdian eta eguerdian eskaintzen diren zerbitzu banatan ere erabiltzaile kopurua gorantz doa. Aste tarteko eskaintza izanik, egin den datu bilketan ez da egun batetik besterako bidaiari kopuruan

alde handirik antzematen. Aipatzekotan, azoka eguna izanik, asteazkenetan ugaritzen diren adinekoen joan etorriak azpimarratu beharko liriteke. Erabiltzaile gehien dituen asteoko eguna izan ohi da.

Erabilera auzoka

AUZOAK	BIDAIARI KOPURUA
Ibarrola	5
Arratzain	10
Ameri	12
Alkortaenea	16
Zubieta	44
Aginaga	45
Kalezar	61
Etxetxo	63
Txikierdi	81
Txantxon	92
Iartza	100
Urdaiaga-San Esteban	104
Urdaira	106
Txokoalde	174
Santuenea	1.638
GUZTIRA	2.551

Felix Aizpurua lehiaketako sariak banatu dira

Gaztetxoek sormena saritu zen beste behin Felix Aizpuruaren literatur lehiaketaren sariketan. Ekainaren 3an Sutegin burutu zen saioan, zortzigarrena jada, sariak jasotzeaz gain, idazlaren egileek euren lanen nondik norako berri emateko solasaldirako tartea hartu zuten, ekitaldiko aurkezlearekin.

8-16 urte arteko gaztetxoei zuzendua dagoen Felix Aizpurua literatur lehiaketaren barruan, aurrean 24 sari banatu dira, guztira 58 olerki eta 152 prosa lan aurkeztu dituzten parte hartzaileen artean. Natura, zoria, beldurra edota Usurbil islatuak ageri dira zortzigarren edizio honetako literatur lanetan.

Sarituak zeregin bikoitza izan zuten; Sutegiko auditorioiko oholtza gainera igo, zegokion saria jaso eta saioko aurkezleak sarituak prestatutako idazlanari buruz egindako galderei erantzutea. Zenbait egileek, euren testuak ere errezitatu zituzten. Lan guztiak, gerora bilduma batean jasoko dira. Iazko literatur



LEHIAKETAN SARITUTAKO GUZTIAK, SUTEGIKO OHOLTZA GAINEAN.

lanak jada, urtero bezala liburu batean bilduta daude. Nahi duenak udaletxean eskura dezake.

Aipatzekoa da zortzigarren edizio honetan, epaimahaikide lanetan arituz den taldea: Jabier Pikabea, Luis Aranalde, Juan Luis Zabala eta Ugaitz

Agirre. Baita sariketan parte hartu zutenak ere: Ander Izeta (aurkezlea), Nerea Erauntzetamurgil (udal ordezkaria), Mertxe Arzallus (Felix Aizpurua zena-aren alarguna), Ugaitz Agirre (epaimahaikidea), Mariaje Imaz eta M. Jesus del Pico (Ikastolako ordezkariak).

Saritutako lanak

A TALDEA (8-10 urte)

OLERKIA

1. Nerea Iraola Jauregiberri, "Loreak mendiak".
2. Aizpea Reveriego Garcia, "Arrosa maitea".
3. Oier Larrea Granados, "Landareak".

PROSA

1. Ane Arriola Lertxundi, "Pailazo tristea".
2. Ane Irazabal Esnaola, "Pittili eta krisia".
3. Andrea De Moura Arrojeria, "Sorgin gaiztoa".

B TALDEA (10-12 urte)

OLERKIA

1. Eneko Toledo Zabala, "Itsaso maitagarria".
2. Maddi Larrañaga Balerdi, "Mendian".
3. Natali Izagirre Aginaga: "Beldurra".

PROSA

1. Tamara Palacios Rodriguez, "Etxeko mamu txikia".
2. Irune Etxabe Larreta, "Usurbilgo kanpaiaren hotsa".
3. Julen Iñarra Arregi, "Kokolo hipopotamo argala".

C TALDEA (12-14 urte)

OLERKIA

1. Haira Rivero Arrieta, "Hitzak saltoka".
2. Nekane Larrañaga Pesquera, "Zein ederra den udaberria".
3. Miren Izeta Goenaga, "Usurbilgo paisaia".

PROSA

1. Itxaso Orbegozo Borda, "Azken mezua".
2. Miren Izeta Goenaga,

"Festetan zehar".

3. Nekane Larrañaga Pesquera, "Mezu anonimoak".

D TALDEA (14-16 urte)

OLERKIA

1. Ander Izeta Goenaga, "Kristalezko begitik ikusita".
2. Jon Imanol Etxabe Telleria, "Zoria".
3. Ander Izeta Goenaga, "Sagasti zabaleko sagarrondo hura".

PROSA

1. Ander Izeta Goenaga, "Egunkariko sekretua".
2. Jon Imanol Etxabe Telleria, "Larrosak, bonboiak eta tango argentinarra".
3. Ander Izeta Goenaga, "Elkartu".

Judo Taldea, berriz ere, bikain

Usurbilgo judo taldekoek denboraldi izugarria osatu dute. Espainiako Txapelketa guztietan lehiatu dira (15, 17, 20 eta 23 urte azpiko txapelketetan). Guztira, zazpi finalerara iritsi dira. Horretaz gain, hiru liga txapelketetan hiru lehenen artean izan da Judo Taldea. Senior mailan, mutilen bigarren taldeak hirugarren bukatu du denboraldia eta Bigarren Mailara igo da. Ohorezko Mailan dabilen senior mailako mutilek, aldiz, bigarren bukatu dute denboraldia. Eta neskek ere, Lehen Mailan lehiatu dira aurten eta bigarren izan dira. Helburu bakarra falta da, Oiana Blanco Munduko Txapelketarako sailkatzea. Zorionak denei!



Igandean Txokoaldera, kiroldegitik abiatuta

Igande honetan, "Kirolari atek izabalik" eguna ospatuko da, Gipuzkoako Foru Aldundiak deituta. Helburu nagusia, kirola sustatzea da. Aurten, Usurbilgo Kirol Patronatuak bat egin du Foru Aldundiaren ekimenerekin.

Ikastolaren Eguna ere badenez, goiz partean egingo den mendi martxa izango da ekitaldi bakarra: Usurbil-Txokoalde arteko ibilaldia.

9:00etan abiatuko dira kiroldegitik eta 11:00etarako Artzabalen izango dira bueltan. Hamaiketako ere izango da Artzabalen.

Ekitaldi honekin bat egin dute Gure Pakeak eta Andatza taldeak.

Datorren astean, piragua zeharkaldia

Puntapax Kanoe Kirol Elkarteak bost urte bete ditu. Ospatzeko, piragua zeharkaldiak egingo dituzte datorren asteburuan. Baina alde zuzenetik, izena eman behar da (651 701 519, Joxeba Azkorreta). **Izen emateko azken eguna, ekainaren 18a.** Ekintzetako aseguru gastuei aurre egiteko, hamar euro ordaindu beharko dira.

EKAINAK 20, LARUNBATA

16:00 Aliriko zubitik hasita, Oria ibaiaren ingurunea ezagutu eta zaindu.

EKAINAK 21, IGANDEA

9:30 Frontoi atzeko plazan. Gero, Orioko hondartzatik Txokoalderaino.

Pilota Txapelketa, azken zortzirenetan

EKAINAK 13 LARUNBATA 11:00

AZKEN LAURDENAK

JUBENILAK

Urbietta - Otaegi / Urdangarin - Maiza (ALKIZA) (AÑORGA)

NAGUSIAK

Ropon - Legarreta / Lizaso - Pebet (AMEZKETA) (BILLABONA)

EKAINAK 14 IGANDEA, 11:00

AZKEN LAURDENAK

JUBENILAK

Kruz - Arana / Loban - Etxamendi (URRETXU) (BURLATA)

NAGUSIAK

Narbarste-K.Galarraga / Lansalot - Galarza (BIDEGOIEN) (LEITZA)

Gomazko Pala Txapelketa

Ligaxkako azken jardunaldia jokatuko da igande honetan, arratsaldeko 17:30etik aurrera. Ikastolaren Eguna denez, Zubietan jokatu beharko dituzte ziuurrenik partidak horiek.

Unai Loidi - Esteban Roteta

Josu Errekondo - Haritz Harreguy

Eneko Harreguy - Jon Olaizola

Oidui Usabiaga - Mikel Aranburu

Xabier Errasti - Manuel Galarraga

Iñigo Irastorza - Imanol Esnaola

Gorka Aierbe - Karlos Aizpurua

Xabier Izeta - Jon Irazustabarrena

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA

Otar-Goxo
Elitraguiak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

izagirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

Agenda !

Ekainak 11 osteguna
"Kantagintza saioa", Sutegin,
18:30ean. HH 5 eta LH 5eko ikasleak.

Ekainak 12 ostirala
"Haurrentzako emanaldia", Sutegin,
16:30ean. 18:00etan txokolatada.

Ekainak 13 larunbata
- Ziortzako kanpaldiari buruzko bilera, 12:00etan Sutegin.
- "Txirri, Mirri eta Txiribiton Junior", 17:30ean frontoian.

Ekainak 14 igandea
- "Kirolari Ateak Zabalik" eguna, Txokoaldeko buelta, kiroldegitik abiatuta. Irteera 9:00etan kiroldegian. 11:00etarako Artzabalen, mokadua.
- "Udarregi ikastolaren Eguna".

Ekainak 17 asteazkena
- Udajolaseko bilera, gurasoei zuzendua. Arratsaldeko 17:00etan Udarregi ikastolako barne-patioan.

Eguneko goardiako farmaziak

Ekainak 11, osteguna
Rodriguez, Nagusia 42 atz., Lasarte

Ekainak 12, ostirala
Gil, Nagusia 24, Lasarte

Ekainak 13, larunbata
Rodriguez, Nagusia 42 atz., Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

Ekainak 14, igandea
Rodriguez, Nagusia 42 atz., Lasarte

Ekainak 15, astelehena
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Ekainak 16, asteartea
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Ekainak 17, asteazkena
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Ekainak 18, osteguna
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Ekainak 19, ostirala
Rodriguez, Nagusia 42 atz., Lasarte

Ekainak 20, larunbata
Gil, Nagusia 24, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil *

Ekainak 21, igandea
Gil, Nagusia 24, Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Castilla Farmazia (22:00-09:00), Urbieta
kalea, 7 Hernani 943 552 941
*Usurbilen, soilik eguerdira arte

"Bihurrikeriak"

Txirri, Mirri eta Txiribiton Juniorren eskutik

Gazteak eta bihurriak dira eta Usurbilgo frontoian eskainiko duten ikuskizunak ere izenburu hori du, "Bihurrikeriak". Txirri, Mirri eta Txiribiton Junior pailazoak larunbat honetan izango dira gure artean, arratsaldeko 17:30ean hasiko den ikuskizunean.

Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoekin belaunaldi asko hazi eta hezi dira. Azken urteotan, juniorrak dira pailazo hauen lekukoa hartu dutenak, bereziki, zuzeneko emanaldietan. Hirukote gaztea 2003an jarri zen martxan eta ordutik hona bost bira egin dituzte. "Bihurrikeriak" da azkena, Usurbilen eskainiko dutena.

Bederatzi esketx dibertigarritz osatzen da "Bihurrikeriak" ikuskizuna. Eta esketx horiekin tartekatuta, abesti ezagunak eskainiko dituzte: "Txirri, Mirri eta Txiribiton", "Sudur gorria", "Paristik natorren" ... Emanaldiaren amaieran, "Zapi zuria" eta "Altza Pelipe!" kantuak abestuko dituzte.



LARUNBAT HONETAN, 17:30EAN FRONTOIAN ARITUKO DIRA PAILAZOAK.

Ordubeteko iraupena izango du larunbateko saioak.

A ze hirukotea

Txirri Junior taldeko pailazo "azkar eta jakintsua" da.

Mirri Junior berriz pailazo bihurriena da, "bazterrak nahasten aritzen da".

Txiribiton Junior pailazo mutua da. "Bihotz handikoa da. Mutua izan arren, pentsatzen duena arazorik gabe ulertzen zaio bozinen eta bere imintzioen bitartez".

Ziortzako kanpaldiari buruzko bilera Sutegin

Aurten, inoiz baino gaztetxo a gehiago animatu dira Ziortzako udako kanpaldira, 117 gazte. Larunbat honetan, bilera deitu dute Ziortzakoek. Bereziki, gurasoei zuzendutako bilera izango da larunbat honetan Sutegin egingo dutena. Eguerdiko 12:00etan hasiko da bilera eta garrantzitsutzat jo dute hitzordua, "beti ere gurasoek jakin dezaten zer egingo dugun, gazteek zer eraman behar duten, zer ez duten eraman behar...". Zehaztasun gehiago beraz, Sutegin.

Belmonte Auzo Elkartearen batzarra

Ostegun honetan, ekainak 11, Belmonte Auzo Elkarteko batzarra egingo da, Harane futbol zelai ondoko lokalean, arratsaldeko 19:00etan.

Aztergaiak hauexek izango dira:

Belmonte Auzo Elkarteko urteko ebaluazioa, auzoko beharrak eta alkatearekin egindako bilera, N-634 errepidea, monjetako proiektua, balio anitzeko eraikina, Lehendakaria... Bestetik, batzorde bat sortu nahi da Kalezarren egingo diren obrak aztertzeko.

ETXEBIZITZA

- 230metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. Dena 6400 metro karratuko lursailen. Kalezarko eremu urbanoan.
- Atxegalden 33 metro karratu dituen lokal bat alokatzen da. Sarrera egokia. 943373414
- Pisu bat daukat alokairuan eta pisukide baten bila nabil. Hilean 250 euro. 615 006 390.
- Santuenean etxebizitza bat daukagu salgai. 2 logela, sala, sukuldea eta komuna dauzka. 28 milioi negoziagarri. 619591849 / 626456448.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Pisu salgai Usurbilen (Txaramunto; 2 urte). 97 m² - erabilgarri. Egongela-sukuldea (35 m²), 3 logela, 2 bainugela, balkoia, arropak esekitzeko toki itxia, garajea, trastelekua eta igogailua. Eguzkitsua. 375.000 euro. 616443507.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m² ditu. Gela bakarrekoa, sukulde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituena. Dena berriua eta amueblatua. 45.000.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukuldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukuldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Peugeot 307a salgai. XS 2.0 HDI bersioa. 90 cv, 5 ate. 2002ko maiatzean matrikulatua, 149000 km ditu. Oso egoera onean dago. Korrea eta alternadore berriak ditu. Gris metalizatua, Parrot markako telefonorako esku- librearekin. 6000 euro negoziagarriak. 685725639.
- Usurbilgo industrialde batean 220 metro

karratuko pabiloi bat alokatzen da. 616926027.

- "Yamaha especial 250" motorra salgai. Egoera onean, 700 euro. 615 006 390.
- Mitsubishi Montero DI-D 3.2 GLS motza salgai. 148000Km, 6 urte. Tel.: 678636965
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajea, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m²-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Astebukaeratan lan egiteko, parrilarako pertsona bat eta beste bat zerbizari moduan aritzeko behar ditugu. 943 36 67 10.
- Usurbilgo Sendategian erizaina behar du OLT-EDU (ATS-DUE). Lan baldintzak jakiteko 943361124 telefonora deitu.

Lan-eskaintzak

- Neska arduratsua etxeko lanak, haurrak zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. 699207750
- Umeak zaintzeko Usurbilgo andre bat eskaintzen da, esperientziarekin. 659 628 447.
- Zerbizari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Emakume bat haurrak zaindu edota orduka etxeko lanak egiteko prest. 943 575 788.
- Mendien edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Emakumea adineko pertsonak zaintzeko prest, interna moduan. 608 098 941.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.

- Emakume gazte bat lan bila dabil, orduka edota plantxan aritzeko: 630 438 571.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Goizez haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago. 616 376 591.
- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00 edo kontestagailuan mezua utzi, 943 36 44 69. Esperientziaduna.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Maiatzak 8an Kodak markako kamara digital bat galdu genuen Kaxkoan. 678177129
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Inaki)
- Artzabal inguruan maleta txiki bat, kotzeko bi DVDrekin aurkitu dugu. Galdu duenak deitu 656774127 telefonora.
- Frantseseko kalaseak ematen ditut Usurbilen. Astelehen eta asteartean. Klaseak maiatzean hasita daude baina oraindik plazak daude. Informazio gehiago Laurok liburudendan.
- Belardiak behar dira belarra ontzeko: Usurbil, Lasarte edo Donostia inguruan. Danitz galde. 607 457 004 / 943 36 60 40.
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Interesatua bazude maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbizua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. 626 220925
- 2. eskuko trikitixa erosiko nuke. 6567652 13.
- Argazki zaharrak txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



Zorionak Asier! "pijo"
Ekainaren 9an 4 urte beteko dituzu. Muxu handi bat Nagore, Eukene, Julen eta familiaren partez.



Zorionak Ane eta Zuhaitz!
Ekainaren 9an Anek eta 11n Zuhaitzek 5 urte egingo dituzue. Zorionak eta muxu asko birentzat. Nahia eta etxeko guztien partez



HILDAKOAK

Presen Arribilaga Arregi
ekainaren 4an hil zen
100 urterekin
Kaleberri



ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL

☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

Kale nagusia, 10
Telf. 943 37 33 48
943 37 09 13

Okandegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Zuen
publizitatea
hemen

☎ 943 360 321
publizitatea@noaia.com

Bihurrikeriak

noauaren eskutik



***Txirri, Mirri
eta Txiribiton
Junior***

Ekainak 13
17:30ean
Usurbilgo frontoian

EDERTU ZAITEZ!

FOTODEPILAZIO ESKEINTZA

35€/sesioa

55€/sesioa

95€/sesioa

195€/sesioa

*zonalde eta sesio bakoitzeko prezioak BEZ barne

Solariuma

Zubiaurrenea, 5-B ☎ 943 361 971

Ioli Lizarralde

Ileapaindegia • Estetika Zentroa Marcho Casaresen eskutik.



Bixen

ileapaindegia

Solariuma
Depilazioa

nagusia 10, Usurbil 943 37 28 44



Agate

ESTETIKA ZENTROA

- Depilazioa • Laser-depilazio
- Manikura • Aurpegiko Tratamendua
- Pedikura • Solariuma • Makilaja

Nagusi 51 • Lasarte-Oria 943 370 549



Kalitateko produktuekin estilizatuz eta estetika lehen ditugu

INTZA

WELLA ILEAPAINDEGIA

Udaberri honetan, gorputza liraintzen laguntzeko tratamendu bereziak eskeintzen dizkizugu gure estetika sailean. Informa zaitez Eguerditan Irekia! Nagusia 8. 943 36 36 41



Elexpe

ileapaindegia

Biteleen tintaketa eta permanentea

Estetika • Tatuaiak

Zulirako eta Etzandako Solariuma

Muna Lurra 12. ☎ 943 370 462



ileapaindegia

mistoa

Depilazioa
Makilajea
Manikura

Zubiaurrenea 4, USURBIL • ☎ 943 361 951